

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 6 milioi euro eman dio Agoitzeko Bigarren Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionalari

*CENER-CIEMAT Fundazioak, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala izanik, bere gain hartuko ditu haren diseinua, eraikuntza, ekipamendua eta ondorengo ustiapena*

Lunes, 27 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran CENER-CIEMAT Fundazioari 6.028.584 euroko diru-laguntza ematea baimendu du Agoitzeko Bigarren Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionala diseinatu, eraiki eta ekipatzeko. Jarduera hori "Nafarroa 2012 Plana"-k sustatzen duen Nafarroako horniduren eta azpiegitura publikoen inbertsio-neurrien barruan dago.



CENER.

Ekimen hori 2007ko urtarrilaren 11n egindako Lehendakarien III. Konferentzian sortu zen; testuinguru horretan Nafarroako Lehendakaria eta Autonomia Erkidegoen lehendakariak Instalazio Zientifiko eta Tekniko Berezien Mapa babestea erabaki zuten, Autonomia Erkidegoen parte hartzearekin landutakoa. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, mapa horrek "Irudi Mediko eta Diagnostikoaren Instalazioa" jasotzen du eta baita "Bioerregiaei buruzko Instalazioa" ere.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak "NAFARROA 2012 Plana" onartu zuen 2008an, eta plan horren jarduera nagusietako bat "Agoitzeko ICTS 2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionala" zen.

Proposamen horrekin batera doan txostenak, Zentro horren proiektua zer gauzatze-egoeran dagoen jakinarazten du, eta CENER-CIEMAT Fundazioak bideragarritasun eta definiziozko azterketa egiten nola parte hartu duen azaltzen du, eta nola Energia Berriztagarrien Zentro Nazional moduan, eragile egoki bakar baten moduan eratzten den instalazioaren diseinua, eraikuntza eta ekipamendua onartzeko eta ondoren ustiatzeko. Hori guztia kofinantzatzeko Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioarekin ezartzen diren etorkizuneko akordioei kalterik eragin gabe, eta akordio horietatik ondorioztatzen dituen neurriei kalterik eragin gabe.

Horrek guztiak CENER-CIEMAT Fundazioari 6.028.584,29 euroko diru-laguntza bat zuzenean ematea justifikatzen du, diseinua finantzatzen ahalbidetuko duena, ekipamendu hori eraikitzea.

## **Agoitzeko ICTS 2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionala**

Agoitzeko ICTS 2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionalak, Berrikuntza eta Teknologiaren Ministerioarekin lankidetzan, egungo bioerregaien mugak gainditu nahi du 2020. urtean erregai garbi horien % 10 erabiltzeko xedea lortzeko, CO2 isurketak murrizteko jarraibide europarrek eskatzen duten moduan.

Zentro horren helburu nagusia izango da, bigarren belaunaldiko bioerregaien ekoizpen-prozesuak garatzea, industria-eskalatzeen bitarteko urrats gisa biomasa, aurretratatamendu eta prozesu ezberdinekin. Proba eta erakusteko plataforma bat ere izango da I+G proiektuen maila pilotuan, eta industria horretarako talde nahiz osagai espezifikoak garatzen lagunduko du, bioerregai berriak garatzen eta biofindegiko kontzeptuak aplikatzen.

Gaur egun bioerregaiak gizakien eta animalien elikadurarako funtsezkoak diren lehengaietatik lortzen dira eta, neurri batean, lehengai batzuen (artoa, soja, esaterako) prezioa garestitzearen erantzule dira. Zentro berria Agoitzen eraikiko da, bioerregaien belaunaldi berri bat ekoitziko du helburu bikoitz batekin: CO2 isurketak minimizatzea nekazaritza-produktuen prezioak gorantz presionatu gabe.